## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 5521

515/1995 DEKRETUA, abenduaren 19koa, zerbitzuengatiko kalte–ordainei buruzko dekretua aldatzeko dena.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.2 atalean agintzen dena betez, zerbitzu hori gauzatzeko diren baldintzak eta diru–zenbatekoak erabaki zituen, lege horretan, egin daitezkeen gastuen ordainak jasotzeko funtzionariek duten eskubidea ezartzen dela.

Hala ere, aipatutako idazki horretan ez da jasotzen geroztik sortu den zenbait baldintza eta baldintza horiek ere, beren egitekoak betetzen ari diren funtzionarioei sortzen dizkieten gastuen kalte–ordaina ekarri behar diete; funtsean organo, zerbitzu eta instituzioak edukitzeko Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak atzerrian gaur daukan aukeratik datozenak dira. Egoera horrek ekarriko du aipatutako lantoki horietan Administrazioaren zerbitzura beren lana betetzen duten langileek, beren zerbitzua dela bide, ohikoak ez diren gastuak izatea, hain zuzen gainerako herri–administrazioetan kalte–ordainak eta konpentsazioak ekartzen dituzten zerbitzuengatik.

Euskal Autonomi Elkarteko 1995 urteko Aurrekontu Orokorrak onartzeko den apirilaren 12ko 1/1995 legearen azken xedapenetatik lehenengoak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 81. atalari lerroaldi bat gehitzen dio, hain zuzen, lantokia atzerrian duten funtzionarioek Euskal Autonomi Elkartearen eremuan lan egiten dutenentzat ezarritako kontzeptu berberaren arabera, aldaketa aurrikusiz. Lan hori hemen betetzen duen funtzionarioak hartuko duenaren arteko aldea parekotzeko –funtzionarioek hemen beste erosteko ahalmena izan dezaten eta egoitza-tokia duen herrian bizi–baldintzak hemengoaren parekotzat jotzeko– modulo berezi bat erabiliko dela zerbitzuagatiko kalte–ordaina eman behar den kasuan.

Kontuan izanik kasu berri horrek zerbitzua dela medio gertatzen diren kalte–ordainei buruz otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan berariazko jaramona eskatzen duela, dekretu horren aldaketari ekin beharra gertatzen da.

Ondorioz, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak emandako erabakia ikusi ondoren, 6/1989 Legearen 8. atalean xedatutakoa betez, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko abenduaren 19n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo Atala.*– Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko 2. atala aldatzea.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 5521

DECRETO 515/1995, de 19 de diciembre, de modificación del Decreto sobre indemnizaciones por razón de servicio.

El Decreto 16/1993, de 2 de febrero, cumpliendo lo prescrito en el artículo 79.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca que establece el derecho de los funcionarios a ser indemnizados de los gastos realizados por razón del servicio, determinó las condiciones y cuantías de su ejercicio.

Sin embargo, en el citado texto no se recogen condiciones que han surgido con posterioridad y que también deben dar lugar al resarcimiento de los gastos que se originen a los funcionarios en el ejercicio de sus funciones, modificaciones fundamentalmente relativas a la posibilidad que en el momento actual tiene la Administración de la Comunidad Autónoma de contar con órganos, servicios o instituciones en el exterior. Esta situación va a originar que el personal al servicio de la Administración que desempeñe sus funciones en los citados centros de trabajo incurra en una serie de gastos extraordinarios por razón del servicio que en el resto de las Administraciones Públicas dan derecho a indemnizaciones o compensaciones.

La Disposición Final Primera, apartado segundo, de la Ley 1/1995, de 12 de abril, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio de 1995, adiciona un nuevo párrafo al artículo 81 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, previendo la diferencia entre la retribución íntegra que corresponde al puesto de trabajo ubicado en una oficina, centro o servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el extranjero y la que percibirá el funcionario que lo desempeñe -por aplicación de un módulo que equipara su poder adquisitivo y condiciones de vida a las del país de residencia– en un supuesto de indemnización por razón del servicio.

Teniendo en cuenta que este nuevo supuesto requiere de una específica consideración en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, hay que proceder a su modificación.

Por todo ello, visto el dictamen emitido por el Consejo Vasco de Función Pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley 6/1989, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 19 de diciembre de 1995.

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Modificación del artículo 2 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko 2. atala aldatu egiten da eta ondorengo idazkera hau duen e) letra eransten zaio:

«e) Atzerriko destinoa»

*Bigarren atala.*– Zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 4. atala aldatzea.

Zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 4. atala aldatu egiten da eta h) eta i) letrak erasten zaizkio ondorengo idazkera hau emanez:

«h) eskolatze–gastuak; atzerrian destinaturik dagoen funtzionarioaren adin txikiko seme/alaba bakoitzaren eskolatzeagatik ordaintzen duen diru–zenbatekoa sartzen da hor, 28. atalean aurrikusten diren baldintzak betetzen direnean.

i) erosteko gaitasuna eta bizitzako baldintzak parekatzeko kalte–ordaina; atzerrian destinaturik dagoen funtzionarioari ordaintzen zaion diru–zenbatekoa da, Euskal Autonomi Elkartean izango lituzkeen eroste–gaitasunaren eta bizi–baldintzen parekoa izan dadin.»

*Hirugarren atala.*– Zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuari VI. atalburua gehitzea.

Zerbitzuarengatiko kalte–ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua aldatu egiten da eta ondorengo edukin hau duen VI. atalburua erasten zaio:

«VI. ATALBURUA

ATZERRIKO ZERBITZUA

*25. atala.*– Destinoa atzerrian duen funtzionarioa Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak atzerrian duen bulego, zentru edo zerbitzu batean dagoen lanpostu bati behin-behinekoz edo behin–betikoz loturik dagoena da.

*26. atala.*– 1.– Destinoa atzerrian duen funtzionarioak, bere egoitza aldatzen badu, bere altzari eta tresneria Autonomi Elkarteko bere azkeneko egoitzatik destinoko herrira garraiatzeko gastuak ordainduak izateko eskubidea izango du.

2.– Atzerriko bere destinoa bukatzen zaionean, Euskal Herrirako itzulerak sortzen dizkion etxe–aldaketako gastuak ordainduak izateko eskubidea izango du funtzionarioak.

3.– Bi kasu horietan, aurrekontua onartu ondoren eta gastuak egiaztatu ondoren egingo zaio gastuen ordainketa.

4.– Egoitza–tokia aldatzeagatiko kalte–ordainetarako eskubidea, aldaketa hori sortu zuen egintza gertatu zenetik bi urte joaten direnean, iraungi egingo da.

*27. atala.*– 1.– Atzerriko destinoa hartzen duen funtzionarioak bere egoitza–herritik destino berrirako lehenengo bidaiaren gastuak ordainduak izateko eskubidea edukiko du eta destino hori bukatzen zaionean, Autonomi Elkartera itzultzeko bidaiakoak. Halaber,

Se modifica el artículo 2 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio en el sentido de añadir una letra e) con la siguiente redacción:

«e) El destino en el extranjero.»

*Artículo segundo.*– Modificación del artículo 4 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Se modifica el artículo 4 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio en el sentido de añadir la letra h) e i) con la siguiente redacción:

«h) Gastos de escolarización; es la cantidad que se satisface por la escolarización de cada hijo menor de edad del funcionario destinado en el extranjero cuando se den las condiciones previstas en el artículo 28.

i) Indemnización por equiparación del poder adquisitivo y de las condiciones de vida; es la cantidad que se abona a un funcionario destinado en el extranjero para que tenga un poder adquisitivo y condiciones de vida equiparables a las que disfrutaría en la Comunidad Autónoma del País Vasco.»

*Artículo tercero.*– Adición de un capítulo VI al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Se modifica el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio en el sentido de añadir un capítulo VI con el siguiente contenido:

«CAPITULO VI

SERVICIO EN EL EXTRANJERO

*Artículo 25.*– Es funcionario con destino en el extranjero el que de forma provisional o definitiva esté adscrito a un puesto de trabajo ubicado en una oficina, centro o servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el extranjero.

*Artículo 26.*– 1.– El funcionario destinado en el extranjero que traslade su residencia, tendrá derecho al abono de los gastos de transporte de mobiliario y enseres entre la localidad de su última residencia en la Comunidad Autónoma y la localidad de destino.

2.– Cuando cese en su destino en el extranjero, el funcionario tendrá derecho al abono de los gastos de mudanza que le ocasione el regreso a Euskadi.

3.– En ambos casos el abono de los gastos se efectuará previo presupuesto aprobado y justificación de los mismos.

4.– El derecho a las indemnizaciones por traslado de residencia caducará transcurridos dos años desde el momento en que se produjera el hecho causante.

*Artículo 27.*– 1.– El funcionario que sea destinado al extranjero tendrá derecho al abono de los gastos del primer viaje que realice desde la localidad de residencia a la de su nuevo destino, y cuando cese, los del viaje de regreso a la Comunidad Autónoma. Asimismo el fun-

bere oporraldiekin batera, joan-etorriko bi bidaiarako eskubidea izango du funtzionarioak.

2.– Eskubide hori duenarekin batera eta bere pentzutan bizi direnen bidai gastuak ere ordaindu egingo dira.

*28. atala.*– Hizkuntza, kultura eta pedagogi-arazoengatik, funtzionarioek destinaturik dauden herriko herri-ikastetxeetan egindako ikasketek, garai horietan Euskal Autonomi Elkartean ofizialki indarrean daudenekin alde handiak dituztenean, lantokia dagoeneko herrian egiazki matrikulaturik dauden adin txikiko seme/alaba bakoitzaren matrikula-gastuak ordaintzeko eskubidea izango dute.

*29. atala.*– 1.– Erosteko gaitasuna eta bizi-baldintzak parekatzeko, atzerrian destinaturik dauden funtzionarioek kalte-ordain bat jasoko dute.

2.– Soldata, aparteko pagak eta osagarri finkoak eta lanpostuaren aldizkakoak batzetik ateratzen den diru-ordainketa guztia, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bakoitzarako erabakiko duen modulu batez biderkatuz ateratzen dena izango da kalte-ordainerako diru-zenbatekoa.

*30. atala.*– Atzerrian destinatuak dauden funtzionarioek dekretu honetan xedatutakoaren indarrez hartu beharreko kalte-ordainen diru-zenbatekoa pezetatan kontatuko da beti eta ordainketa diru horretan edo beste edozein dibisa bihurgarrian egingo da Ogasun eta Herri Admnistrazio Sailak onartu ondoren.

*31. atala.*– Atalburu honetatik ateratzen diren dirusarrerak dekretu honetan xedatzen diren gainerako kalte-ordainekin eta konpentsazioekin bateragarriak izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko abenduak 19.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

cionario destinado en el extranjero tendrá derecho a dos viajes de ida y de vuelta a la Comunidad Autónoma al año, coincidiendo con periodos vacacionales.

2.– Se indemnizarán, así mismo, los gastos de viaje de los que convivan con el causante del derecho y a sus expensas.

*Artículo 28.*– Los funcionarios destinados en un país en el que los estudios cursados en centros públicos pudieran presentar, por razones de índole lingüística, cultural o pedagógica, grandes divergencias con los oficialmente vigentes en cada momento en la Comunidad Autónoma de Euskadi, tendrán derecho al abono de los gastos de matrícula de cada hijo menor de edad efectivamente escolarizado en el país donde está ubicado el centro de trabajo.

*Artículo 29.*– 1.– Los funcionarios destinados en el extranjero percibirán una indemnización por equiparación del poder adquisitivo y de las condiciones de vida.

2.– La cuantía de la indemnización será la resultante de multiplicar la retribución íntegra obtenida de la suma del sueldo, incluido el de las pagas extraordinarias, y los complementos fijos y de carácter periódico del puesto de trabajo, por un módulo determinado para cada ejercicio por el Consejo de Gobierno.

*Artículo 30.*– El importe de las indemnizaciones que, en virtud de lo dispuesto en el presente Decreto corresponda percibir a los funcionarios destinados en el extranjero se computará siempre en pesetas, realizándose el pago en esta moneda o en cualquier otra divisa convertible, previa autorización del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 31.*– Las percepciones derivadas de este capítulo serán compatibles con las demás indemnizaciones y compensaciones previstas en el Decreto.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.